

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza info

Asteazkena, 2013ko urtarrilaren 23a. IX. urtea. 2.469. zenbakia. tolosaldea.hitza.info



Izaskun Arandia tolosarra, eskuinetik bigarrena, astelehenean Leidorren eginiko estreinaldiaurrekoan. I. URKIZU

'Agur esatea' filmaren estreinaldiaurreko txalotua

Izaskun Arandia tolosarrak ekoitzi eta idatzi duen animaziozko filma eman dute Tolosako Leidor aretoan, eta harrera beroa izan du **02**

Larunbatean emango diote hasiera Leitzako aurtengo ihoteei

Aurrera elkartean egingo duten bazkariarekin ekingo diote asteartera arte iraungo duten festei; kultur taldekoek atsaurtzeko eta kalejiran parte hartzeko deia egin dute **07**

Udal aurrekontuaren gaineko herritarren ekarpenak ostirala bitarte jasoko dituzte

Amasa-Villabonako Udal Gobernuak ia sei milioi euroko aurrekontua proposatu du, eta hilaren 30ean onartuko dute osoko bilkuran **06**

Irudiekin osatutako 'Arpegi is different' erakusketa jarri dute Topic zentroan

Tolosako Arpegi taldeak egin duen erakusketa otsailaren 1a bitarte egongo da ikusgai; Iñaki Elola da argazkien egilea **05**



Erakusketan dagoen berrogeita bederatzigarazkietako bat. HITZA

Mobilizazioak hasi ditu LABek metalgintzako hitzarmena mantentzeko

Adegik herrialdeko hitzarmena ez duela sinatu nahi esan du sindikatuak; egoera salatuzko eskualde mailako elkarretaratzea egin dute Tolosan **04**

2013ko egutegia

Zatoz HITZAra, 2013ko mahai egutegiaren bila!

TOLOSALDEKO hitza ETA LEITZALDEKO

ko egutegia 2013

Leidor bete du ia, 'Agur esatea' ren estreinaldi aurrekoak

Txalo zaparrada jaso du Izaskun Arandia tolosarrak ekoitzi eta idatzi duen animaziozko filmak

Izteia Urkizu

Hamahiru urte Ingalaterran igaro eta gero, aspaldiko partez Leidorera itzuli zen, Izaskun Arandia tolosarra. *Agur esatea* (*To Say Goodbye*) animaziozko filmaren estreinaldi aurrekoak aretoa bete zuen ia, eta txalo zaparrada epe-lak bide eman zion pelikula ondorengo solasaldiari. «Leidorera azkeneko etorri nintzanean, eserlekuak gorriak edo granateak zirela uste dut!», azaldu zuen zinegile tolosarrak barre artean.

Matt Richards zuzendariarekin elkarlanean, ekoizle eta gidolaria izan da, Arandia, pelikula honetan, eta Donostiako Zinemaldian eskaini zuten lana, lehenengo, Euskal Herrian.

36ko gerran Euskal Herriatik Ingalaterrako Southamptonera eraman zituzten 4.000 haurrak dira, film luze horretako protagonistak. Garai hartan haur, eta gaur egun adineko pertsona diren horien ahotsak publiko euskaldunari hurbiltzen, berriz, euskal aktore eta bikoizleak aritu dira: Xebe Diez, Kandido Uranga, Klara Badiola, Marian Galarraga, Iñaki Beraetxe, Mariasun Pagoaga, Kontxu Odriozola, Mikel Mendizabal, Miren Aranburu, Martin Mendizabal, Jose Manuel Goikoechea, Ramon Agirre eta Jose Ramon Larrea.

Horrela, Tolosako saio berezian, Klara Badiola ondoan izan zuen Izaskun Arandiak. Halaber, Ane Gabarain aktorea ere bertaratu zen, eta baita filma *crowd-*

fundin-aren bidez ekonomikoki babestu zuten bi lagun ere.

Ikusleak eseri bezain pronto, Martxelo Otamendik filma aurkezteari ekin zion: «Guretzat, euskaldunontzat, oso hunkigarria den gai bat aukeratu du Izaskunek bere lehen film luzea egiteko». Bide beretik, pelikularen euskarria ere nabarmendu nahi izan zuen Otamendik: «Animaziozko filma da, eta oso euskarri ezohikoa, beraz. Izan dadila, hau xe, Izaskun Arandiaren ibilbide luzearen lehen pausoa».

Benetakotasunaren bila

Proiektzioa amaitu ondoren, solasaldiari ekin zioten Martxelo Otamendik eta Izaskun Arandiak. Ikus entzule batek, esaterako, animazioa aukeratu izanaren arrazoiak ezagutu nahi izan zuen.

Batetik, publiko gaztea harapatzeko helburutik abiatu ziren, egileak, *Agur esatea* sortzerakoan; «eta beren gustoko estetika-aren bat etor zitekeela» pentsatu



Hau gertatu egin zen, Euskal Herrian gertatu zen, eta kontatzen dutena egiazkoa da»

IZASKUN ARANDIA
Zinegilea

zuten. Horrez gain, protagonisten adinak ere zerikusia izan zuela azaldu zuen Arandiak: «Pertsonaiak oso helduak dira, eta beren haurtzaroz ari dira; hori dramatizatzea, beraz, ezinezkoa da. Beste aukera, orduan, istorioa berre-raikitzea zen, baina niri ez zaizkiki batere gustatzen horrelakoak».

Hasiara batean kontrakoak iradoki dezakeen arren, beraz, benetakotasunaren bila sortu zuten



Izaskun Arandia eta Martxelo Otamendi, proiektzioa amaitu eta gero egindako solasaldian. LURKIZU

animaziozko filma, eta ez edozein animaziozkoa, gainera. Irudi errealak ere txertatu dituzte Richards-ek eta Arandiak, animazio bilakatuta. «Azken finean, hau gertatu egin zen, Euskal Herrian gertatu zen, eta kontatzen dutena egiazkoa da. Animazio hutsarekin, fikziozkoegia irudi zezakeen pelikulak, eta hunkigarria da gerrako irudiak ikuste», azpimarratu zuen Izaskun Arandiak.

'Habana' itsasontziaren patua

1937ko apirilean, Eusko Jaurlaritza nazioarteko eskaera egin zuen, gerratik haurrak eba-kuatzeko. Zazpi herrialdek soilik erantzun zuten: Ingalaterrak, Danimarkak, Belgikak, Sobietar Batasunak, Frantziak eta AEBk. Azken hauek katolikoak zirela eta, ez zuten ebakuzioa onartu.

Horrela, urte bereko maiatzaren 21ean irten zen *Habana* ontzia, Southamptonera (Ingalaterrara). Hiru hilabeterako bakarririk zihoazela uste zuten guztiek, baina itsasontzi hartako hainbat haur ez ziren Euskal Herrira itzuli. Pelikulako 14 gizon-emakumeak dira, itzuli ez ziren 250 haurretako batzuk, eta beren testigantzek harrapatu zuten Leidorreko ikusle gosea, beldurra, bakkardadea, zikinkeria, ... Zortzi hamarkadatik gora izan arren, zehaztasun osoz gogoratzen dituzte, oraindik ere, txikitan pasatakoak.

Nantesko jaialdiko hautagaietako bat izango da 'Agur esatea'

I. Urkizu

Agur esatea filmeko lantaldeak atzo bertan jaso zuen berria: Nantesko (Bretainia) zine jaialdian parte hartuko du pelikulak. Datorren martxoaren 7an hasiko da, eta Ventana Vasca atalean hautagaietako bat izango da animaziozko lana.

Era berean, 29. Euskal Zine As- tean ere ikusgai izango da lana, Gasteizen. Emanaldia datorren otsailaren 26an izango da, eta *Berberg* film laburrekin eta Maru

Soloresen *Camera Obscura* rekin batera eskainiko dute.

Nazioartean barrena

Gernika izango da, *Agur esatea* ren hurrengo aretoa, estreinaldi ofiziala eskainiko baitute bertan.

Modu berean, Elorrión eta Arrasaten berretsi dituzte saioak, eta herri txikietatik ere deitu dietela azaldu du Arandiak.

Hala ere, «nazioartean interesa piztu» duela nabarmendu du tolosarrak: Brasil, AEB eta Portugaldik deitu diete, besteak beste.

→ Laburrak

Hitzaldia EPAn, bihar, elikadura osasuntsuaz

OSASUNA > EPAn hitzaldia izango da, bihar, 16:00etan, ikasle- en elkarteak antolatuta. *Elikadura osasuntsua: sen ona edo ikasi egin behar da?* izenburupean, Amaia Perales nutrizioan aditua izango da hizlaria.

Lasterketak antolatu dituzte Karting Tolosan

AISIA > Karting Tolosan laster- ketak antolatu dituzte, urtarrila- ren 26an eta otsailaren 2an, 22:00etatik 00:00etara. 3 gidariko 10 taldek parte hartuko dute, eta 120 itzuli eman behar- ko dituzte; gidari bakoitzak 20 euro ordaindu beharko du. Ira- bazleek kasko bana jasoko dute. Otsailaren 1ean eta 8an, berriz, babesleen banakako las- terketak izango dira. Hauetan guztietan izena emateko edo taldeak osatzeko, www.themotorplan.com webgunea bisitatu behar da.

Aiz Orratzen mozorro lehiaketako izen-ematea

GIZARTEA > Aiz Orratzen otsai- laren 2ko mozorro lehiaketako izen ematea urtarrilaren 28tik otsailaren 1era izango da, elkar- tean, 18:00etatik 20:00etara.

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

Ikasleei eta gurasoei zuzendutako egitarauak

Amasa-Villabona, Ibarra eta Tolosako hiru ikastetxek egitarau zabalak prestatu dituzte datozen egunetarako

Eneritz Maiz

Eskualdeko hainbat ikastetxek kultur asteak edo jardunaldiak antolatu dituzte egunotan. Amasa-Villabonako Fleming ikastetxeak, Ibarako Uzturpe ikastetxak eta Tolosako Hirukide ikastetxeak, esaterako.

Amasa-Villabonako Fleming eskolako astelehenean ekin zion, kultur asteari. Joxe Amiama psikopedagogoaren hitzaldia izan zuten, guraso elkarteak antolatuta. «Hitzaldi bikaina eman zuten. Familia eta eskola harremanak eta onurak gaia landuz», adierazi dute antolatzaileek. «Mezua oso garbia eta zuzena izan da, guztion ardura bada ere, familien baitan dago batez ere seme-alaben heziketa. Guztiz ezinbestekoa da eskola eta familien arteko elkarlana», nabarmendu dute. Hori abiapuntu hartuta, Joxe Amiamak

datu, pista eta jorratu beharreko ibilbideak azaldu zizkien bertartuei.

Atzo, txikienean Idoia Sanchez ipuin kontalariarekin gozatu ahal izan zuten, Gurea aretoko erakusketa gelan. Gaurkorako, hitzaldiaz gain euskal jolasak prestatu dituzte. Igandea bitartean, beste hainbat ekitaldi antolatuak dituzte Fleming Guraso Elkarteak kideek.

Ibarako Uzturpe ikastetxeko osatzailean emango dio hasiera XIII. Kultur Asteari. Alurr dantza taldearen emanaldia izango da Belabietako kiroldegian. 20:30ean hasi da, eta taldeko hurrek eta gazteek *Iturriak dakarrena* ikuskizuna aurkeztuko dute. Errota taldea prestatzen ari den ikuskizun berriko hainbat dantza ikusi ahal izango dira. Errota 12 eta 13 urteko gazte osaturiko taldea da.



Idoia Sanchez ipuin kontalaria izan zen, atzo, Gurea aretoko erakusketa gelan. I.TERRADILLOS

Larunbatean, berriz, Uzturpe ikastetxeko festa izango da. Puzgarriak izango dira, eta arropa eta taloak salduko dituzte, 18:00etatik aurrera. Hurrengo astean, berriz, besteak beste, gurasoei zuzendutako hitzaldiak izango dira, Benito Izagirre Kultur Etxean.

Bere aldetik, Tolosako Hirukide ikastetxeak Giza Eskubideen Astea antolatu du. Mahai ingurua eta hitzaldia antolatu dituzte, eta aste osoan, Tolosako Trianguloa plazan, postontzi erraldoia jarriko dute. Bi galdera luzatu dituzte, eta edozein herritarrek utzi ditzazke bere proposamenak. Jarraian, herri ordezkariak helaraziko dizkiete.

Wurko herriaren alde, korrika
Amasa-Villabonako Jesusen Bihotza ikastetxeko DBH 4. mailako ikasleek eta Gorputz Hezkun-

tzako irakasleak, Xabier Salillas korrikalari urtrafondistarekin batera egingo dute. Lasterka egiteko helburu berbera izango dute, hau da, Angel Olanan aita zuriak Etiopiako Wukro herrian duen misioetako lana ezagutzera eman eta laguntza ekonomikoa eskaintzea.

Ikastolak euro bat emango du ikasle korrikalari bakoitzeko. Norberak ekarpen gehiago egin nahiko balu, ongi etorria izango dela adierazi dute ikastolakoek. Honez gain, zozketarako txartelak erosteko aukera izango da 50 zentimoren truke. Kirolari espetseuek emandako elastikoak zozkatuko dituzte. Sagastialdeko pistetan instalatuta dagoen karpan eros daitezke txartelak.

Aste honetan zazpi egunetz ari tuko da korrikalari hernaniarra Sagastialdeko atletismo pistan

korrika. Egunean 100 kilometro egiteko asmoa du, eta bildutako dirua Hernani Wukrorekin GKE-arentzat izango da. Eguneroko goizeko 08:00etan hasi eta 22:00ak arte ariko da. Larunbatean eta igandean festa izango da bertan, azken kilometroetan laguntzeko.

Ikastolatik, herritar guztiei dei egiten diete, astean zehar bakoitzak nahi duenean Hernaniko atletismo pista joan daitezten. Bakarka ala taldeka Salillasekin korri egiteko aukera izango da, edo besterik gabe animatzaera joan daiteke. Bestetik, norbaitek diru laguntzaren bat eman nahiko balu edo zozketarako txartela erosi, Jesusen Bihotza ikastetxeko idazkaritzan egin dezake.

Euskal Herriko pertsona ezagun askok eta askok hartuko dutela parte egitasmo solidario honetan adierazi dute.

↓ Egitarauak

FLEMING (VILLABONA)

■ **Urtarrilak 23, gaur.** 17:00etan, ordubetz, 5-6 urteko haurrentzat euskal jolasak izango dira Malkar plazan (eguraldi txarra egin ez gero, Berdura plazan). 18:00etan, *Conocernos y acercarnos en la diversidad* hitzaldia izango da, Gureako erakusketa gelan.

■ **Urtarrilak 24, osteguna.** *Gure herriko aitona-amonak nola ibiltzen ziren?* saioan, bisita jasoko dute erretirodunen elkartetik. 17:00etan, *Aizkardi ttonttorrez ttonttor* argazki muntaia, Aljibearen. 18:00etan, *Katramila* antzezlan, Gurea aretoan.

■ **Urtarrilak 25, ostirala.** 17:00etan, haur danborrada, Arroako eskolartetik. 19:00etan, buruhandiak eta erraldoiak, Erreboten plazan. 20:30ean, bokata jatea, Berdura plazan. Beharazana eta Irrintzi elkartearen eskutik.

■ **Urtarrilak 26, larunbata.** 10:00etatik aurrera, *Gure herriko pilota eta errebotea*, Bearzana elkarte eta Eskola kirolaren

eskutik. Frontoi berrian eta plazan izango dira. 16:00etan, patinaia lasterketa eta 16:45ean, ginkana egingo dituzte. Irteera Kale Berrian izango da. 17:30ean, txokolote jatea egingo dute, Altzin plazan.

■ **Urtarrilak 27, igandea.** 10:00etan, Arroako eskolartetik, Txuri urdinera irteera egingo dute.

UZTURPE (IBARRA)

■ **Urtarrilak 25, ostirala.** 20:30ean, Alurr dantza taldearen *Iturriak dakarrena* ikuskizunaren emanaldia izango da, Belabietako kiroldegian.

■ **Urtarrilak 26, larunbata.** Uzturpe ikastetxeko festa izango da. 15:00etatik 18:00etara, puzgarriak egingo dira, Belabietan. 18:00etan, Uzturpe ikastetxeko aldeko arropa eta talo salmenta egingo dute.

■ **Urtarrilak 27, igandea.** Mendi irteera, eta Alegiara ogiaren museoa ikustera joango dira, 10:00etan, Ibarako plazatik abiatuta.

■ Urtarrilak 28, astelehena.

11:30ean, ikasleei zuzendutako mahai ingurua etorkin euskaldunekin.

■ **Urtarrilak 29, asteartea.** 18:00etan, *Haurren jolasa: helduen begirada eta lekua* hitzaldia, Albaro Beñaran psikomotrizista eta pedagogoaren eskutik, kultur etxean. 0-6 urteko haurren gurasoei zuzendua.

■ **Urtarrilak 30, asteazkena.** 18:00etan, *Sare sozialak eta adingabeak* hitzaldia izango da Irlaxte Esnaola informatika ingeniariaren eskutik, kultur etxean. LH eta DBHko gurasoei zuzendua.

■ **Urtarrilak 31, osteguna.** Ateak zabalik eguna izango da, Emeterio Arrese eraikinean. 2 urteko haurren gurasoei zuzendua. 17:00etan euskaraz eta 18:30ean, gaztelera.

HIRUKIDE (TOLOSA)

■ **Urtarrilak 23, gaur.** Bigarren Hezkuntzarako proiektua aurkezteko bilera egingo dute. 18:00etan izango da, San

Blas auzoa 27an duten egoitzan.

■ **Urtarrilak 24, osteguna.** 16:00etan, Hezkuntza Proiektuaren aurkezpena egingo dute, 2-3 urtekoak (2010 edo 2011an jaiotakoak). San Frantzisko, 12 helbideko egoitzan izango da. - Hirukide Haur eta Lehen Hezkuntza.

■ **Urtarrilak 29, asteartea.** 19:00etan, *Realidad social de la crisis. Giza eskubideak eta krisia* mahai ingurua izango da, herritar guztiei zuzendua. Hirukide eskolako areto nagusian izango da, eta Koldo Casla, Arartekoaren gabineteko zuzendaria, Pako Garmendia soziologoa eta Deustuko irakaslea eta Caritaseko ordezkaria izango dira hizlariak.

■ Urtarrilak 30, asteazkena.

Ate irekiak egingo dute 17:15etik 19:00ak arte, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan (12-16 urte) sartzeko ikasleentzat.

■ **Urtarrilak 31, osteguna.** 18:00etan, *La otra cara de la crisis. Jarrera baikorra eragozpenen aurrean* hitzaldia izango da, Hirukide eskolako areto nagusian. Hizlaria, Jose Antonio Gonzalez psikologoa eta adimen emozionalean aditua izango da.

■ **Aste osoan.** Postontzi erraldoiak jarriko dute Trianguloa plazan. Bi galdera jarri dituzte edozein herritarrek bere proposamenak botatzeko: *zer egin dezakegu krisiaren aurrean?* eta *zer eskatuko zenieke agintari?* dira erantzun beharreko galderak.

Beti Añai

jateak

Garaian garaiko janariak

Arraikietan bereziki

943 67 33 81 / 943 67 19 20 • Errementeri kalea, 16 • 20400 TOLOSA



LAB sindikatuko metalgintzako ordezkariak elkarretaratzea egin zuten, atzo, Tolosako Trianguloa plazan. I.&L.

Adegik metalgintzako herrialdeko hitzarmena ez duela sinatu nahi dio LABek

Mobilizazioak hasi ditu sindikatuak hitzarmena mantentzeko; arloko 203 enpresa eta 3.130 langile daude Tolosaldean

Imanol Garcia Landa

LAB sindikatuak elkarretaratzea egin zuen atzo, Tolosako Trianguloa plazan, Adegik metalgintzako herrialdeko hitzarmena ez duela sinatu nahi salatzen. Aurreko ostiralean herrialdeko hitzarmenaren mahaia bildu zen, eta LABek adierazi duenez, sindikatuak aurkeztutako proposamenari «ezeko borobilarekin» erantzun

zion Adegik. «Patronalak ez du nahi metalgintzako hitzarmena Gipuzkoako metalgintzako langile guztientzako gutxieneko lan baldintzak arautzen dituen instrumentu izaterik», azaldu du LABek, eta gaineratu: «Gobernu espainiarraren lan erreforma aplikatu nahi digute Gipuzkoako langileei. Hau da, ultraaktibitate ez, soldata izozketa, hitzartutakoa ezerezean uzteko derrigorrezko arbitraia, eta abar...». Tolosaldean, metalgintzaren arloan guztira 203 enpresa eta 3.130 langile daude.

«Erloju kontrakoa» aspaldi hasi zela dio LABek eta Adegik ez diela «ezer oparitu» esan du. «Borrokaren bidez lortu beharko

dugu», esan dute LABetik, eta gaineratu: «Gure ustez, gainontzeko sindikatuak, hitzarmenaren alde daudela esateaz gain, bere aldezer egiteko prest dauden ere esan beharko lukete». Hitzarmenaren aldeko apustua «garbia eta gardena» dela esan dute eta horregatik mobilizazioak hasi dituztela jakinarazi dute.

Hitzarmena mantentzea lortu nahi bada, LABen arabera «ezinbestekoa izango da sindikatuon artean adosturiko mobilizazio egutegi bateratua». Horretarako prest daudela esan dute: «Mobilizatzeraz goaz, bakarrik edota gainontzeko sindikatuekin. Gainontzeko sindikatuak ere mobilizatzeko prest egotea espero dugu».

Ordaindutako praktikak hogeit langabetuentzako

Lehiberrik antolatuta, 'Merkaturako Ingurumen Ziurtagiria' moduluan jasoko dute formakuntza

I. Garcia Landa

Lehiberrik, Tolosaldea Garzatenekin eta Lanbiderekin elkarlanean, ikastaro espezializatuak eta ordaindutako praktikak eskaintzen dizkie 20 langabetuei, Enplegu Berdea izeneko formakuntza planaren barruan. Praktika-programa horretan, *Merkaturako Ingurumen Ziurtagiria* izeneko moduluan prestakuntza jasoko dute.

Langabetuentzako parte hartze baldintzak ondorengoak dira: 35 urte baino gutxiago izatea, Lanbiden izena emanda izatea langabetu egoeran, eta ingeniari-tza teknikoa, industria ingeniari-tza, kimika, biologia edo ingurumen zientzietan unibertsitateko titulua izatea.

Ekimen horrek bereizitako bi zati izango ditu. Batetik, formakuntza arloa: 350 ordu egin beharko dira modu prezentzialean. Formakuntza hori jaso ondoren, pertsona hori ingurumena kudeatzeko sistemekin lotura duten lanak egiteko gai izango da. Bestetik, enpresetan praktika

denboraldia: 450 eta 650 ordu arteko iraupena izango dute, eta hiru eta sei hilabete arteko denboraldian egingo dira, egunean gehienez bost ordu aritu ahalko baita.

Praktiketan dagoen pertsonak 500 euroko beka jaso dezake Lanbideren bitartez hilero, eta horrez gain garraio eta mantenu laguntzak jaso ahaliko ditu kasu batzuetan.

Plan horretan parte hartzeko interesa dutenak Tolosaldea Garzateneko Lanbideko enplegu zentroarekin harremanetan jarri behar dute, 943 65 45 01 telefono zenbakira deituz.

Enplegu zentrotako ikastaroa

Tolosaldea Garzatenetik ikastarobaten berri eman dute, Tolosaldeko lan merkatuaren ezaugarriak izenekoak. Lana aurkitzen ari diren erabiltzaileei zuzendutako lan merkatuaren egoera azalduko dute ikastaroan. Enpresen, entitateen, eta lanaren bilaketan lan egiten duten agentei buruzko informazioa, zentro formatzaileena... emango da. Datu estatistikoak, lana bilatzeko helbideak, eta beste azalpen batzuk emango dituzte.

Urtarrilaren 30ean emango dute ikastaroa. Bi ordukoak izango da, 10:00etatik 12:00etara. Harremanetan jartzeko 943 65 45 01 zenbakira deitu edota lan@tolosaldea.net helbidera idatzi behar da.



harpidedun izateak badu saria

zozketa

1 Zabala Sagardotegia Bi laguntzako bazkari edo afaria

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **51**

Garagartza baserria
Aduna
Tel.: 943 69 0774
www.rzabala.com



2 Isastegi Sagardotegia Bi laguntzako bazkari edo afaria

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **52**

Aldaba Txiki, 15
Tolosa
Tel.: 943 65 29 64
www.isastegi.com



3 Sarasola Sagardotegia Bi laguntzako bazkaria

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **53**

Asteasu
Tel.: 943 69 02 83



4 Donostiako Aquariuma Bi laguntzako bina sarrera

Telefonoz parte hartzeko eskaintza zenbakia: **54**

www.aquariumss.com



Parte hartzeko deitu edo idatzi: **902-82 02 40 / txokoa@hitza.info** [harpidedunen kodea, izena, herria, eta zeineskaintzetan parte hartu nahi duzun garbi adieraziz] Aste honetako astearte eta asteazken goizean, nahi duzun orduan. Saridunak ostiralean argitaratuko ditugu.

harpidedunen **TXOKOA hitza**

1978.urtea izan zen, Arpegi taldeak inauterietako ikuskizuna taularatu zuen lehenengoa. Ostiral Mehe berpizteko helburuz hasi zena, iruditan aurkeztu du taldeak, Topic aretoan, 'Arpegi is different' erakusketan.

Ostiral Meheren beste aurpegia

Itzea Urkizu Tolosa

Ostiral Meheko jaialdia, Tolosako inauterien egitarauan tradiziozko ekitaldi bilakatu da zenbait herritarrentzat. Duela hiru hamarkada baino gehiago Arpegi taldeak hasi zuen jaialdi honen beste aurpegi bat ikusi ahal izango dute bisitariek, argazki garaikideen bitartez, *Arpegi is different* erakusketan, Topic zentroan, otsailaren 1a bitarte.


Iñaki Elola da erakusketako argazkien egilea, eta jaialdiko entseguak nahiz taldeak burututako grabazioetako irudiak daude ikusgai, 49 erretratutan barrena. Aipatzekoa da, zenbait argazkik eskuz egindako pinturen itxura dutela; autoreak erabilitako teknikaren isla dira.

Besteak beste, parte hartzaileen lehen planoak, taldeko argazkiak, nahiz jaialdi eguneko irudiak dira bildu dituztenak, eta mozorroak dira nagusi; zezen munduko parodiek argazkietako asko hartzen dituzte.

35. jaialdia aurtun

1978ra atzera egin behar da, Arpegiren jaialdia nola hasi zen jakiteko. Sortzaileek Ostiral Mehe eguna sustatzea zuten helburu nagusizat, eta zenbait inauterizale elkartu ziren horretarako; Arpegi izena eman zioten talde hari, eta *playlist* saio bat antolatu zuten.

Gaur egun, saioak hainbat al-



Ostiral Meheko jaialdian oholtzara igo aurreko uneak ikus daitezke. HITZA

daketa jasan ditu, eta belaunaldi berriek ere parte hartzen dute; garai berrietara egokituz, beraz,

Iñaki Elolak eskuz egindako pinturen itxura eman die argazki batzuei

esketxak nahiz bideo proiektzioak eskaintzen ditu, besteak beste, Arpegik.

Erakusketak pasa den urtarrilaren 11n inauguratu zuten, jaialdiko aitzindariak diren Joxean Larrañaga, Roberto Diez, Jose Antonio Larrañaga *Urko* eta Alejandro Diezek, eta datorren otsailaren 1era bitarte ikusgai izango da. Gainera, aipatzekoa da, aurtengo inauterietan ere izango dela Arpegi Leidor aretoko oholtzan ikusteko aukerarik. Ostiral Mehe egunean izango da, otsailaren 8an, 22:45ean.



Zezen munduko parodien irudi asko ikus daitezke. HITZA



Argazkien artean, lehen plano edo erretratu asko daude; guztiak Arpegiko kideenak dira. HITZA



1978tik hona hainbat aldaketa jasan ditu jaialdiak. HITZA

Tolosaldea**‘Ikasmina: herriz herri’ ekimena Baliarrainera iritsiko da, gaur goizean**

09:00etatik 13:00etara bisitatu ahal izango da Tolosaldea Goimailako Lanbide Heziketa Institutuko postua

R. C.

Pasa den astean hasi zen, Altzon, Ikastn-en *Ikasmina: herriz herri* ekimena, eta gaur Baliarrainera izango dira 09:00etatik 13:00etara, erabilera anitzeko eraikinean.

Egitasmoa, martxora bitarte, eskualdeko herri askotatik pasako da. Ikastn-ek azaldukoaren arabera, helburua eskualdean bizi diren biztanleei ikasmina sustatzea da, eta horretarako ikaskuntzarako aukera guztien informazioa eskuratu ahal izango da. Era berean, Bizitza Osoan Zeharrek Ikaskuntza gizarteratua nahi dute.

Informazioa eskaintzeaz gain, aholkularitza ere emango dute eta horrela, norberaren interes eta gaitasunak indartuko dituzte, garapen propiorako tresnarik eraginkorrenak landu edota baikoitzak arlo honetan dituen hutsune eta premiak ezagutu ahal izango dituzte gune hauetara gerturatzeko direnak.

→ Laburrak**Korrikaren aldeko mus txapelketa eta batzarra**

EUSKARA Korrika martxoan iritsiko bada ere aurretik egiten diren ekitaldi eta batzarrak iritsi dira jada. Ikaztegieta Mus Txapelketa egingo dute ostiralean, ostatuan. 22:00etan eman ahal da izena eta 22:30ean hasiko dira jokoan. Bikoteko 10 euro ordaindu behar da, eta lehenengo bikoteak afaria eta eskualdeko txapelketarako txartela eskuratuko ditu. Amezketan, berriz, batzarra egingo dute, gaur, erabilera anitzeko gelan, 20:00etatik aurrera.

Euskal Herriko Mus Txapelketako saioak

GIZARTEA Ibarren eta Tolosan Euskal Herriko Mus Txapelketako kanporaketak izango dira larunbatean, hilak 26. Tolosan 17:00etan bilduko dira Oargi elkartean, eta Ibarren 16:30ean, Subegi elkartean.

Amasa-Villabonako Udal Gobernuak ia 6 milioi euroko aurrekontua proposatu du

Ostirala arte jasoko dituzte herritarren ekarpenak; urtarrilaren 30ean onartuko dute behin betiko

Rebeka Calvo Amasa-Villabona

Villabonako Udal Gobernuak, Ogasun batzordearen bidez, bukatu du 2013ko aurrekontuen zirraborra. Prestatutako dokumentuari ekarpenak egiteko garaia da orain, eta ostiralean, hilak 25, bukatuko da epea. Aurrekontuen behin betiko onarpena urtarrilaren 30eko osoko bilkuran emango lukete.

Proposamenak 5.834.815,43 euro aurreikusten ditu guztira, 2012an baino 200.000 bat euro gehiago. Inbertsioen atalean 441.000 euro aurreikusi dituzte, iaz baino %26,91 gehiago. Era berean, udalak zero zabor politikarekin bat egiten duela eta konpromisoa agertu izan du, eta hori dela eta 125.000 euroko gastua aurreikusi dute inbertsioen atalean urtean zehar hainbat ekitaldi egiteko. «Gure programan zero zabor politikaren alde egingo genuela esan genuen. Gaitzako bilketan ahalik eta emaitzarik onenak lortzea dugu helburu; hori dela eta, aurrekontuan esfortzu berezia eskaintzen diogu gai honi», esan

dute udal gobernuko ordezkariak.

Elkarteak eta norbanakoak

Elkarteen eta norbanakoen diru laguntzetarako diru kopurua 2012koaren antzekoa izango da, eta udal zerbitzuak ere ez dituzte gutxitu iazko aurrekontuekin alderatuz. Zentzu honetan, gizarte politiken bueltan, birbanaketa bat aurreikusi dute aurrekontu proiektuan: «Gurean, geroz eta gehiago dira oinarriko beharrak asetzeko adina ballabide ez dituztenak. Villabonako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako sailak kudeatzen dituen diru laguntzetan gehien behar duten gure herrita-

↓ Inbertsioak**441**

• **Mila euro.** Iaz baino %26,91 euro gehiago. «Giltzarri» diren gaietan egin nahi dituzte inbertsioak; garapen jasangarrian edo zerbitzuetan esaterako. Zentzu honetan zero zabor politikan sakontzeko 125.000 euroko gastua aurreikusi dute; auto-konposta egiteko guneak presatzeko, atez atekoaren ezarpen faserako, sentsibilizazio kanpainak egiteko...

rrei babes zabalagoa eskainiko zaie», esan dute.

Aurrekontuak Amasa-Villabonako mugikortasunari buruz egin nahi duten azterketa sakona eta herriko bidegorriaren margo-tzea ere aurreikusten ditu. Era berean, energia-politikaren barruan, argiteria aldatzen jarraitzea aurreikusi dute.

Herritarren ekarpenak

Villabonako Udalak aurrekontuak modu parte hartzailean diseinatu nahi izan ditu, eta hori dela eta pasa den abenduan informazioa eta ekarpen prozesu bat abiarazi zuen. Udalak hainbat ideia, eskari eta proposamen jasoz zituen, eta guztiak sakonki aztertu ostean, udal gobernua horietako zenbait aurtengo aurrekontuen proposamen horretan bilduko ditu.

«Amasa Villabonako bizilagunek udalak banatutako inkestaren bidez helarazi dizkiguten hainbat eskari sartu ditugu aurrekontu proiektuan: Berez Behar Amasa Villabonakoa izeneko bekak, bizikletak uzteko aparkalekuak, jolastoki publiko bat esaltzeko azterketa proiektua edota haurren aisialdirako hainbat lokal, besteak beste», azaldu dute. Galdeketa orriaren bitartez jasotako galdera, ideia eta ekarpenak banan-banan erantzuten saiatuko direla ere esan dute.

Elikadura osasuntsua eta senda belarrak lantzeko hitzaldiak

Orendainen egingo dituzte ostiralean eta otsailaren 2an; azalpenez gain praktikak egingo dituzte

R. C. Orendain

Orendaingo Udalak urteari hasiera emateko bi hitzaldi-tailer antolatuko ditu.

Lehenengoa ostiralean izango da, hilak 25, 19:00etan eraikin berrian, eta bertan elikadura osasuntsua izango dute hizpide. Ondoren, parte hartzaile guztiek zerbitzuko aukera izango dute.

Besteak, otsailaren 2an, larunbata izango da. 18:00etan bilduko dira eraikin berrian eta bertan, inguruko mendi eta basoetan dauden senda belarrei buruz hitz egingo dute. Azken hitzaldi honetan, gainera, parte hartzaileen artean senda belarrei buruzko bost liburu zozkatuko dituzte.

Espainiako bandera jartzeko aginduaren inguruko batzarra, gaur

Amezketako kultur etxean bilduko dira 19:00etatik aurrera; herritarren ekarpenak jaso nahi dituzte

R. C. Amezketa

Amezketako udaletxera ere iritsi da Espainiako bandera jartzeko agindua, eta hori dela eta batzarra egingo dute gaur, 19:00etatik aurrera, kultur etxeko areto nagusian. Izan ere, «inposaturiko agindu hau, udalaren nahiaeren kontrakoak izan arren, dakartzan ondorio legalak direla-eta betetzeko konpromisoa hartu du udalak», azaldu dute.

Udaletxean legea betetzeko asmoa badute ere, herritarrekin bildu nahi dute «bandera udaletxean ezartzearen inguruan informatu, eztabaidatu eta ahal bada aurrera begira zer egin erabakitzeko». Batzarrean zinegotziek hitz egingo dute batetik, eta betetik, Bai Euskal Herriari herri ekimeneko kideek.

Ondoren, herritarren txanda izango da.

Irudia Tolosaldea**NESKEN PALAKO EUSKAL HERRIKO FINALA**

Eskualdeko pilotariak partida ugari izango dituzte asteburu honetan ere. Neskek, hala ere, aipamen berezia merezi dute, igandean, Etxarri-Aranatzen 11:30etik aurrera palako Euskal Herriko Txapelketako finala jokatuko baitute. Tolosaldeko neska jubenilen bi bikote ariko dira elkarren aurka: Su

Berri-Intxurre (taldea irudian). Ostiralean ere partidak izango dira. 19:00etan Alegian Intxurre 2-Aurrera Saiaz 3, Intxurre 1-Aurrera Saiaz 5, Intxurre 2-Añorga 2. Ikaztegieta 19:00etan Intxurre-Ziotza eta Intxurre-Urnieta. Eta Arrasaten 20:40ean Arrasate-Intxurre. HITZA

Hemen dira lehendabiziko ihoteak

Larunbatean hasi eta asteartera bitarte iraungo dute Leitzako ihoteek; atsautzera animatu dute aurten ere

Irigo Terradillos Leitza

Festarik dibertigarri eta zoroenak ate joka dira. Tolosaldean eta Leitzaldean inauteriak ospatzen lehen herriak Leitza eta Lizartza dira, eta ondoren etorriko dira gainerakoak, Tolosakoak guztien buru direlarik. Lizartzan larunbat honetan garai bateko pasadizo oroituz egin ohi duten antzerkia izango da, eta datorren asteburuan izango dute jarraipena festek. Leitzan, berriz, ihoteak larunbatean hasi eta asteartera bitarte iraungo dute.

Herri kutsuko festa zirenak, hiri festa bilakatu joan dira, baina, azken urteetan, kultur taldearen lanari esker, lehengo ihoteei eusteko ahalegina egin da. Horren erakusle da 2007. urtetik astearte arratsaldean izaten den atsaureen kalejira indartzeko egindako lana. Aurten ere, antolatzaileek bide beretik jarraitu, eta herritar oro animatu dute atsautzera: «Urtetik urtera geroz eta jende gehiago atsautretzen da. Iaz, esaterako, jende ugari irten zen kalejiran, eta oso polita izaten da, horregatik herritar guztiak gonbidatzen ditugu parte hartzera». Aurtengoan, gainera, berrikuntza gisa, herritarrek osatu duten txaranga talde batek la gunduko du kalejira.

Soinean eramateko jantziekin ezezik, etxeetako kanpoaldeak apaintzeko arropekin ere egin dute deialdia, herritar guztiak balkoiak koloretzatzera animatuz.

Eskean, herrian eta auzoetan
Herri kutsuko inauterietan izan ohi den moduan, Leitzakoetan ere eskean aritzea izaten da egitarauan nabarmentzen den ekitaldietako bat. Lehenengo egunean,



Pasa den urteko ihoteetako atsaureen kalejirako une bat. I. TERRADILLOS

↓ Egitaraua

URTARRILAK 26, LARUNBATA

- **14:00.** Bazkaria, Aurrera elkartean.
- **16:00.** Herriko auzoetako eskeak.

URTARRILAK 27, ZALDUN-IOTE

- **12:00.** Industrialdetik guriak aterako dira, eta plazatik kalejira Incansables txarangarekin.
- **12:00-14:00.** Txu-txu tren ibiliko da herrian barrena.
- **14:30.** Bazkaria eskolako jantzelan, Incansables txarangakoen doinuek alaiturik.
- **16:00-18:00.** Txu-txu tren ibiliko da herrian barrena.
- **19:00.** Bertso saioa zinean.
- **19:00-23:00.** Orkestra gizona plazan.

URTARRILAK 28, ASTELEHEN-IOTE

- **09:00.** Gorritaran, Arkiskil, Erreka eta Sakulu auzoetan eskeak.
- **17:00.** Umeen kalejira, musikaz alaiturik.
- **Ondoren.** Txokolatea plazan, eta goxokiak ere banatuko dituzte.
- **19:00-23:00.** Orkestra gizona plazan.

URTARRILAK 29, ASTEARTE-IOTE

- **09:30.** Erasote auzoko eskeak.
- **11:00-13:00.** Puzgarriak eta jokuak frontoian.
- **14:00.** Aurrerako bazkideen bazkaria.
- **16:00-18:00.** Puzgarriak eta jokuak frontoian.

- **18:30.** Atsaureen kalejira, herriko musika bandak lagundurik.
- **19:30.** Dantzadi musika taldea plazan.
- **23:30.** Dantzadi musika taldea plazan.



Baserrietan, eskean, iaz. IT.

Behar bezala atsautzeko kontuan hartu beharrekoak

➔ Atsautzeko nahikoa da arpegia tapatzea edo pintatzea, eta gorputza soineko, maindire edo arropa zaharrekin estaltzea, inork ez ezagutzeko moduan. Era bereziago batean egin nahi izanez gero, hona hemen azalpena:

Buruan, zapia, txanoa, lasto txanoa, tuturra lisoa luma eta paperekin, behi edo ahari adarrak... Arpegia margotu edo maskara edo zapi zuri batekin estali. Gorputz osoa hartuko duen soinekoa, sotana edo txilaba modukoa jantzi. Gerria zabaldu daiteke edo bularraldea handitu, eta zakua eta larrua ere erabili daitezke. Eskuak margotu edo eskularrekin tapatu daitezke. Osagarriak: maskuria, luma buztana, abere buztana edo eskoba motza, sardea, eskuarea, makilak edo ta zintzarriak.

hau da, larunbatean, herrian bertan ariko dira eskean, eta azken bi egunetan, kanpoaldeko auzoetako etxeetara egingo dute bisita eskelariek.

Gainerakoan, adin guztiei zuzendutako ekitaldiak izango dira, Juan Mari Barriola Leitzako Udako kultura zinegotziak azaldu duenez: «Adin guztiak ordezkatuak izan daitezten saiatzen gara; dena den, ihoteek ez dute adinik izaten, txikienetik hasi eta zaharrena guztiak mozorrotu daitezke eta antzerkitxoak egin».

Aurrekontu xumearekin — 7.580 euro — eta pasa den urtekoarekin alderatuz murrizketa txiki batekin prestatutako ihoteak dira aurtengoak. Hori bai, festa hauek ederki pasatzeko ez da askorik behar Leitzako kultur batzordeetik gehitu dutenez: «Bakoitzak barruan duen sormenari eta antzezleari bide eman, eta festa giroan eta lagun artean gozatu».

o leitzaldea@hitza.info

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarrita Gipuzkoako beste 4 Hitzetan DOAN

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

HITZA Gipuzkoako bigarren egunkari irakurriena



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak SM
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Eneritz Maiz
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@hitza.info
Webgunea: tolosaldea.hitza.info

Zuzendariordea: Imanol Garcia Landa. **Kudeatzailea:** Jon Mujika.
Publizitate: 661 678 818 tolosa@bidera.eu
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@hitza.info
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@hitza.info
Anoeta: 687 410 022. anoetaldea@hitza.info
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@hitza.info
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@hitza.info
Leitza: 687 410 118. leitza@hitza.info

Tolosa Herria Hedabideak SM-ko kideak:

BERTAKO HEDABIDEAK



Galtzaurdi euskara taldea



eta Tolosaldeko eta Leitzaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. **Udalak:** Aduna, Albiztur, Alegia, Altzo, Ametzeta, Anoeta, Areso, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Bidegoian, Elduain, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Villabona eta Zizurkil

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

Ikasketa teknikoko Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena saria, Asteasura



Eskuinetik hasi eta hirugarrena da Arantxa Otegi asteasuarra. HITZA

Arantxa Otegi asteasuarrak eskuratu du arlo tekniko saria; beste hiru sari ere banatu dira

Eneritz Maiz Asteasu

Euskarazko Tesien III. Koldo Mitxelena Sariak pasa den astean banatu ziren, Bilbon. Arantxa Otegi asteasuarrak eskuratu du Ikasketa Teknikoaren alorreko saria. Honez gain, Osasun Zientziak alorreko saria Karlos Ibarregurenentzat izan zen; Gizarte Zientziak eta Zientzia Juridikoak saria Inaki Lazkanorenentzat eta Larraitx Zubeldiak eskuratu zuen, Giza Zientziak alorrekoa.

2008an, Euskal Herriko Unibertsitateak eta Euskaltzaindiak Euskarazko Tesien Koldo Mitxe-

lena Saria sortu zuten, euskarazko ikerketa bultzatu eta sustatu asmoz. Sariak bi urtetik behin banatzen dira bost jakintza arlotan. Aurtun, Zientzia Esperimentalak hutsik geratu da. Andres Urrutia euskaltzainburua eta Xabier Kintana idazkaria eta EHUKO Inaki Goirizelaia errektorea eta Xabier Etxaniz Euskara eta Eleaniztasuneko errektoreordea bertan izan ziren. Ekitaldi berean, Aiora Jaenaren Itzulpenari buruzko gogoeta eta itzulpen-praktika Joseba Sarriandiaren lanetan liburuak aurkeztu zen.

Otegiaren tesia

Arantxa Otegi asteasuarraren *Hedapena informazioaren berreskurapenean: hitzen adiera desanbiguazioaren eta antzekotasun semantikoaren ekarpenak* tesia izan da saritua. Tesiaren zuzendariak, Eneko Agirre eta Xabier

Arregi izan dira. Eginiko lanak, informazioaren berreskurapena (IB) erabiltzaile baten informazio-beharra aseko duten dokumentuak bilatzean datza. Honela bada, IB sistemak erabiltzaileari dokumentu adierazgarriak, alegia, erabiltzaileak behar duen informazioa eduki dezaketan dokumentuak, topatzen lagunduko dio, betiere erabiltzaileak egindako kontsultan oinarrituz. IB sistema perfektu batek dokumentu adierazgarriak ez beste berreskuratu beharko lituzke, eta ez adierazgarriak baztertu. Alabaina, sistema perfektuak ez dira existitzen. IB sistemak aurre egin behar dioten arazo nagusienetako bat kontsulta eta dokumentuen arteko parekatze-arazoa deiturikoa da. Tesi lan honetan hizkuntzaren prozesamenduari bidez, parekatze-arazoa arintzerik bako ote den aztertuta da.

Agurrak



Urte askoan!
Mikaela Zabala Goñi (Txarama).
Herenegun 91 urte. Zorionak eta muxuak familiaren partetik.

AGURRAK
943-65 56 95 tolosaldean@hitza.info

agurrak

Agenda

BESTELAKOAK

- **Amezketak.** Gaur, 19:00etan, Espainiar banderaren inguruko herri batzarra izango da, kultur etxean.
- **Baliarrain.** Ikasmina: herriz herri ekimena izango da, gaur, 09:00etatik 13:00etara. Balio anitzeko gelan egongo dira. Ikastenen antolatuta.
- **Berastegi.** Inauterietako afarian izena emateko epea zabalik dago, hilaren 28a bitartean. Helduek 18 euro ordaindu beharko dute, eta 18 urtetik behar dute izena. Txartelak, Urepele elkarteak, Zelai tabernan edota udaletxean daude.
- **Abaltzisketa.** Abaltzisketan Tolosaldea Sahararekin elkarrekin urtero antolatzen duen kanpainarekin egin dute bat. Elkarrekin elikagaiak, norberaren garbiketarako produktuak eta eskolarako materiala bildu nahi ditu. Produktuak udaletxean utzi behar dira.
- **Ibarra.** Langostino Moto kultur elkarteak irteera antolatu du, hilaren 27rako. Ibarrik abiatu eta Tolosa, Urnieta, Astigarraga, Oiartzun zeharkatuko dituzte bertan hamaiketako egiteko. Bueltan Ibarra itzuliko dira. Parte hartu nahi dutenek, izena eman behar dute 675 71 25 05 telefono zenbakian.
- **Alegia.** Saharara bidaltzeko produktu bilketa egiten ari dira; udaletxeko gizarte zerbitzuetan edo San Juan eskolan utzi behar da materiala.

IKUS-ENTZUNEZKOAK

- **Tolosa.** *El abrazo de los peces* filmaren proiektzioa, gaur, 20:00etan, Tolosako kultur etxean.

IKASTAROAK

- **Anoeta.** Ibilaldi nordikoko ikastaroan parte hartu nahi duenak, hilaren 24a baino lehen eman beharko du izena, liburutegian edota kiroldegian. Ikastaroa, hiru ordukoa izango da, eta hilaren 26ean, larunbatean izango da, 10:00etan. 10 euro ordaindu beharko da.
- **Villabona-Zizurkil.** Maila aurrituratu sukaldaritzako ikastaroan izena eman daiteke. Amasa-Villabonako eta Zizurkilgo Udalek antolatu dute, eta izena villabonako udalean eman behar da. Hilaren 28an hasi eta martxoaren 4ean bukatuko da. Astelehenean eta asteazkenean izango da, Villabonako Irrintzi elkarteak 19:00etatik 21:00etara. Bertakoek 58 euro eta kanpokoek 75 euro ordaindu beharko dute.

ERAKUSKETAK

- **Tolosa.** Aurpegi taldearen, *Arpegi is different* erakusketa dago ikusgai, Topic zentroan. Otsailaren 1a bitartean egongo da.
- **Tolosa.** Iraia Okinaren ilustrazioak, eta Javier Baldaren eta Nerea Ugarteren lanak ikusgai daude, Aranburu Jauregian, hilaren 26a bitartean.

Farmaziak

GAUR

- **Tolosa.** Egunkoia eta gauekoa: Olarreaga, 1. Korreo kalea, 2. Telefonoa: 943 67 01 28.
- **Lekunberri.** Mendia, M. I. Aralar kalea, 25. Telefonoa: 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Mauka Gaurko Eskaintza

Otordu goxoa Rubiorenara jatetxean

RUBIORENA JATETXEA
Leizola 1
2200 Leizola - GIPUZKOA
Tel: 943 65 11 65
tolosaldean@hitza.info

Prezioa 20€

www.mauka.eu **berria**